

ERLAUNTZA

Aroztegiaren ondoko txokoan jarri zituzten. Hiru erlauntza. Hiru enbor huts. Etxearen goiko aldean. Martintxori amak esaten zion hara ez hurbiltzeko. Eta hurbiltzekotan, ixil-ixilik egiteko. Ez aztoratzeko erleak, egun osoa lanean igarotzen zutela. Uzteko lasai. Argizari ederra egiten zuten, eta baita ezta ere. Martintxo hanka puntetan hurbiltzen zen, askotan ez, baina bai tarteka-tarteka. Ezti gosez zenetan. Hatz erakuslea txuloan barna sartu eta mmmmmmm zurrupaka labaintzen zuen mingaina hatz erakuslearen bueltan. Egun batean, ezkututik, aita erleei hizketan entzun zuen. Galdetzen zien ea zer moduz ibili ziren mendi aldean, ea lore berriren bat topatu ote zuten, ea laguntzarik behar zuten...

Eta halaxe hasi zen Martintxo ere erleekin hitz egiten, haiekin batera kantatu eta jolas egiten... behin amak harrapatu zuen arte.

- Aizu, Martintxo, aspaldian inoiz baino ezta gehiago egiten dute erleak? Zuk ez duzu jakingo zergatik, ezta?

Eta Martintxok hatz erakuslea amaren aurrean zurrupatu, amari lepotik heldu, muxu handi bat eman eta txintik esan gabe eskilaretan behera egin zuen saltoka-saltoka.

Sukalde paretik, eskilaren beheko mailatik, oihu egin zion Martintxok amari:

- Galdetu aitari!